



EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica



GIZARTE ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

2010

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

1. KONPETENTZIAREN DESKRIPZIOA

Gizarteari buruzko jakintzak haren ikuspegi guztietatik erabiltzeko trebetasuna da gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna; betiere, gizarte-gertakariak eta -arazoak aldagarriak diren testuingurutan eta espazio-eskalatan interpretatzeko, horiei dagozkien erantzunak landu eta erabakiak hartzeko, eta beste pertsona eta talde batzuekin elkarreragiteko, indarreko arauak betez.

Gaitasun honen bidez lortu nahi da ikasleek egungo gizartean eta sistema demokratikoaren antolamenduari, funtzionamenduari eta eboluzioari buruzko jakintza zehatzak izan ditzaten eta, berariaz, sistema demokratikoaren ezaugarriak eta balioak ezagut ditzaten; halaber, trebetasunak lantzea du helburu, inguruneko arazoak identifika ditzaten, beren bizipenak aztertu eta horiei buruzko gogoetak egin ditzaten, garrantziko informazioa lortu, interpretatu eta balora dezaten, eta, finean, proposamenak lan ditzaten, arduraz eta gero eta autonomia handiagoz bizitzeko. Beste xede batzuk dira gizarte-gertakariari buruzko ikuspegi kritikoa lantzea, gizarte-justizia, dibertsitatearekiko errespetua eta antzeko balio demokratiko eta herritarrak garatzea, eta jarrera gogotsuak izatea inguruko entzuteko, elkarrizketatzeko, laguntzeko, parte hartzeko, enpatia izateko, etab. Ikasleak beren nortasunaz jabetzea eta kontzientzia hori heltzea lortu nahi da, eta horixe bera egitea garaiko gizarteak ageri dituen injustizia, arazo eta desorekekiko.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren eduki-esparrua zehaztean, ikusten da lotura eta elkarreragin handiak dituela beste oinarrizko gaitasun batzuekin. Izan ere, gaitasun horren oinarrizko alderdietako batzuk aztertzean, ikusten da bere baitan biltzen direla ezaugarri hauek: informazioa aztertzea, beste pertsona batzuekin elkarrizketatzea, arazoetarako konponbideak proposatzea, gizarte-gertakarien protagonistak eta interesak identifikatzea eta horien kausak eta ondorioak erlazionatzea. Ildo horretatik, lotura horietako batzuk baino ez ditugu nabarmenduko, aintzat hartuta, orobat, ezaugarri hori bat datorrela oinarrizko gaitasunak sare baten moduan ulertzen dituen ereduarekin. Hala, ikuspegi horren arabera, gaitasun guztiak daude elkarri lotuta eta elkar elikatzen eta laguntzen dira.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren eduki-esparruak bat egiten du zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunaren eduki-esparruaren alderdi hauekin: biek ikertu nahi dituzte zorrotasun zientifikoak gizarte-gertakariak, eta ikuspegi sinplistikak gainditzen dituzten planteamenduak egin nahi dituzte. Halaber, ikuspegi ekosistemikoa lantzen dute, gizartean berezko konplexutasuna ulertzen saiatzeko.

Gaitasun guztiak informazioa erabiltzeko darabilten modua baliatzen du (informazio-iturriak identifikatzea, informazio garrantzitsua hautatzea eta prozesatzea, informazioaren azterketa kritikoa egitea, informazioa berregitea, etab.), baina, batik bat, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunak darabilena.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunarekin lotura estua dute ezaugarri hauek: elkarrizketatzea, entzutea, proposamenak egin eta iritzia ematea, balorazioak egitea, pertsonen arteko trukeak eta harremanak aintzat hartzea, etab.

Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasunarekin partekatzen ditu eduki hauek: ikuspegi kritikoz baloratzea gero eta anitzagoa den gizartearen adierazpen ugariak, nork bere nortasunaren kontzientzia garatzea, gizartean eboluzioa ulertzea, inguruneko gertakari konplexuei eta gizakien adierazte- eta sortze-modu anitzei

buruzko iritzi autonomoak izatea, eta horietan guztietan parte hartzea eta horiez gozatzea.

Ikasten ikasteko gaitasunaren egiturazko printzipioekin lotzen dira, zuzenean, eduki hauek: norberaren autonomia indartzea, nor bere nortasunaren jabetasuna garatzea eta ikaste-prozesuan norberak duen protagonismoa indartzea, eta jarrera intelektualak eta emozionalak erabiltzea.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunarekin lotzen dira gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren funtsezko alderdi batzuk; esaterako, pertsonen balio eta jarrera hauek garatzea: ardura; autonomia; autokritika; ekin-jardunaren jarraikortasuna; norberak dituen aukeren jabetasuna; arriskuak hartzea, alde onak eta zailtasunak aintzat hartuz, etab.

Eta, azkenik, matematika-gaitasunarekin lotzen dira ezaugarri hauek: kantitatezko eta espaziozko informazioa interpretatzea; logika erabiltzea, arazoak aztertze; soluzioak bilatzea; pentsamolde abstraktua eratzen joatea; gizarte-gertakarien kantitate-adierazpenei buruzko kalkuluak egitea, etab.

Finean, gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren bidez, ikasleak alfabetatu nahi dira gizarteko eta herritartasuneko jakintza, trebetasun eta balioetan, horiek guztiak eskuratuta, gai izan daitezen informazioa eskuratzeko eta aztertze, arazoak identifikatzeko, informazioa eta proposamenak interpretatu eta baloratzeko, kausen eta ondorioen arteko harremanak egiteko, entzuteko, elkarrizketatzeko, soluzioak jakinarazi eta proposatzeko, eta jarduera-plan koherenteak eta arduratsuak egiteko, bai bere buruarekiko, bai inguruko jendearekiko eta gizateria osoarekiko.

Eskolak inguruneari erreparatzen dio, eta gizartearen eta herritarren bizitzan parte hartzen du, errealitate hori aldatzen laguntzen du, eta ikasle bakoitza aldaketa-prozesu horren protagonista bilakatzen da, bere eguneko bizipen eta jardueren testuinguruan.

2. GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIAREN DIMENTSIOAK

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia edo gaitasuna **dimentsioak** deituriko multzo handietan dago egituratua. Dimentsio horietako bakoitzak **azpikonpetentzia** batzuk ditu, eta azpikonpetentzia horietako bakoitzerako **ebaluazio-irizpideak** zehaztu dira; azken horiek, hain zuzen, ikasleak egitea espero den zeregin edo eragiketa zehatzak dira, konpetentzia lortu duela erakusten dutenak. Adierazleek argi eta garbi erakusten digute ikasleak zer jakin behar duen eta zer dakien, eta zer-nolako jarrera duen bizitza arduratsua, autonomia, solidarioa, parte hartzailea eta, besteak beste, ekintzailea izateko, bai bere buruarekiko, bai gainerako pertsonekin dituen harremanekiko. Halaber, horixe bera adierazten dute lanarekiko, osasunarekiko, balio demokratikoekiko, ingurumenarekiko eta beste alderdi batzuekiko.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia hiru dimentsio hauetan banatzen da:

- Gizarte-errealitatea.
- Herritartasuna.
- Bizikidetzeta.

Dimentsio bakoitzaren ezaugarriak adieraziko ditugu, haien eduki eremua zehaztu eta adibideen bidez bistaratzeko.

Gizarte-errealitatea

Historiarekin, giza geografiarekin, ekonomiarekin, soziologiarekin eta beste gizarte-zientzia batzuekin zerikusiak dituen oinarritzko kontzeptuak, trebetasunak eta jarrerak bildu dira dimentsio honetan. Egungo gizartea nola sortu den, nola aldatu den eta egun zer funtzionamendu duen azaltzen dituzte horiek guztiek, eta haren arazo nagusiak eta erronka eta zailtasun batzuk ulertzen laguntzen dute. Jakin behar dugu ea ikasleek denboran zehar gertatutako bilakaera baten ondorio moduan ulertzen duten egungo gizartea, eta gai diren ala ez gizarte-esparruetako dibertsitatea hauteman eta azaltzeko. Aztertu behar da ikaslea gai ote den nolabaiteko egokitasunez azaltzeko gizarteko alderdi ekonomikoak, lan-arlokoak, aisialdikoak, kontsumokoak, gizarte-zerbitzuetakoak eta bestelakoak.

Herritartasuna

Gizarte demokratikoetako eskubide eta betebeharreko lotutako alderdiak biltzen ditu dimentsio honek; besteak beste, eguneroko bizitza, instantzia publikoak, parte hartze aktiboa eta herritartasunaren egikaritzea. Ikaslearen gertuko eremuetatik (familia, lagunartea, eskola) abiatzen da dimentsioaren planteamendua, baina testuinguru zabalagoak ere hartzen ditu, globalizazioaren ondorioak azalarazten dituztenak. Ildo horretatik, bizikidetzaren dimentsio honek bereziki erreparatzen dio giza eskubideen eta haurren eskubideen izaera unibertsalari, eskubide horien erabilera-esparru guztietan, eta, halaber, eskubide horien murrizketak edo urrapenak pairatzen dituzten pertsonen egoerari erreparatzen die.

Bizikidetza

Dimentsio honen ardatza gatazkak aztertzean datza, eta bereziki bultzatzen du haiek ebatzi edo konpontzeko alderdiak. Horrez gain, ikasleek balio-sistema bat eraikitzea eta pertsonen arteko bizikidetza antolatzen duten arauak ezagutarazi nahi ditu.

Balio etikoetan oinarritutako nortasun bat garatzea da dimentsio honen xede-indarretako bat, eta, horrez gain, ikasleek nortasun horretan oinarrituta hartzea beren erabakiak; hala, ikasleek beren gain hartuko dute beren ekintzen erantzukizuna, eta irizpide propioak izan eta autonomiaz jokatu dute gainerako pertsonekin harremanak izatean.

Dimentsioaren beste alderdi batzuk dira arauak identifikatzea eta haiek sortzeko prozesuak ulertzea, adostea eta bere egitea, gizarte-komunitatearen ongizatea hobetzeko ekarpenak egin ditzaten.

Jarraian, taula batean adieraziko dira dimentsio bakoitzaren azpikonpetentziak:

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KOMPETENTZIA

Gizarte-errealitatea

1. Errealitate historikoaren bilakaera.
2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
4. Informazioa eta komunikazioa.

Herritartasuna

5. Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
6. Herritartasunaren egikaritzea edo erabilera arduratsua.
7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.

Bizikidetzak

8. Gatazkek ebatzi eta konpontzea.
9. Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.
10. Bizikidetzaren araupen edo antolamendua.

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIAREN ITEM ADIBIDEAK

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

AISIALDIKO JARDUERAK

Otzuregi herri txikia da, baina kultura eta kirol jarduera asko ditu. Batzuk Kultur Etxean egiten dira eta, beste batzuk, herriko elkarteek antolatzen dituzte. Udalak urtero liburuxka bat bidaltzen du etxeetara jarduera horiei buruzko informazioa emateko.

Jarduera baterako izena emateko liburuxka arretaz irakurri behar duzu.

UDAL ETA KIROL JARDUERAK

Otzuregiko Udala



Udalak hurrengo jarduera hauen berri eman nahi du:

I- KULTUR ARETOA

1- Udal liburutegia: Zabalik astelehenetik ostiralera, arratsaldeaz 16:30etatik 20:00etara.

2- Haurrentzako ikastaroak: ingelesa, musikaren hastapenak, antzerkia, adierazpen artistikoa (pintura eta buztina).

Informazioa/publikoarentzako arreta ordutegia: astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara.
Telefonoa: 946131533 / 946131534.

II- OTZUREGIKO KIROL TALDEAK

1- Kirol taldeak: (6 urtetik aurrera):

- Eskupilota
- Igeriketa
- Futbola
- Balet taldea

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara. **Telefonoa:** 946132022.



Otzuregiko Udala

1. Ikusten duzunez, Otzuregiko Udalak hainbat jarduera antolatzen ditu herritarrentzat. Nola deituko zenieke Udalak eskaintzen dituen zerbitzuei?

- A. Kultura eta kirol zerbitzuak.
- B. Ekonomia zerbitzuak.
- C. Hezkuntza zerbitzuak.
- D. Turismo zerbitzuak.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 1: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 2: Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Kultura eta kirol zerbitzuak bereizten ditu beste zerbitzu-motetatik (ekonomikoak, osasunekoak...).
- ***ERANTZUN ZUZENA***: A. Kultura eta kirol zerbitzuak.

2. Futbol talderako izena eman nahi baduzu, zer egin beharko zenuke?

- A. Osasun Zentrora deitu.
- B. Kultur Etxera deitu.
- C. Otzuregiko kirol taldeetara deitu.
- D. Futbol taldeko entrenatzaileari deitu.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 1: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 2: Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Aisialdi eta kultura jardueri buruzko liburuxkako informazioa erabiltzen du.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: C. Otzuregiko kirol taldeetara deitu.

3. Pentsa dezagun igandea dela eta izena futbol talderako lehenbailehen eman nahi duzula. Zer egin beharko zenuke?

- A. Gaur bertan, igandean, deitu.
- B. Asteartean goizeko lehen orduan deitu.
- C. Asteazkenean goizean goiz deitu.
- D. Astelehenean goizeko hamarretan deitu.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 2: Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Arazo errazei konponbidea bilatzen die, kirol eta kultura zerbitzuen erabileraren inguruan.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Astelehenean goizeko hamarretan deitu.



4. Demagun liburutegiko karneta egin duzu dagoeneko. Zure ustez, zeintzuk dira bazkide izatearen abantailak?
- A. Liburutegiko liburuak etxera eraman ditzaket egun batzuetarako.
 - B. Liburutegira edozein egunetan eta edozein ordutan joan naiteke.
 - C. Bazkidea izateagatik opariak ematen dizkidate.
 - D. Liburutegiko liburuak etxera eraman ditzaket nahi dudan denborarako.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 1: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 2: Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Udal-liburutegiko bazkide izatearen abantailak ezagutzen ditu.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: A. Liburutegiko liburuak etxera eraman ditzaket egun batzuetarako.

HAURREN ESKUBIDEAK



Irakurri arretaz testu hau::

UNICEF (Haurrentzako Nazio Batuen Fondoa) hurrei herrialde guztietan beren eskubideak defendatzen laguntzen dien nazioarteko erakundea da. Haurren eskubide horiek honela laburbil daitezke:

- Jateko nahikoa izateko eta medikura joateko eskubidea.
- Eskolara joateko eskubidea.
- Iritzia emateko eskubidea.
- Tratu txarrak ez jasotzeko eskubidea.

1. **Haurren eskubideak** defendatu behar direla esaten dugunean, zer dira eskubideak?

- A. Haurrak bizi ahal izateko egokia eta zuzena dena.
- B. Haurrentzat txarra dena.
- C. Hurrek debekatuta dutena.
- D. Hurrek derrigorrez egin behar dutena.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2: Herritartasuna.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7: Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.
- **ITEMAREN HELBURUA:** "Eskubideak" kontzeptuaren esangura ulertzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** A. Haurrak bizi ahal izateko egokia eta zuzena dena.

2. Behean argazki batzuk dituzu. Batzuetan haurren eskubideak errespetatzen direla ikusten da, baina beste batzuetan ez. Adieraz ezazu haurren eskubideak zeinetan **errespetatzen diren**.



A. Neskatoa lanean



B. Neska ospitalean



C. Mutiko soldadua



D. Mutiko lanean



E. Haurrak bazkaltzen eskolan



F. Haurrak eskolan

- A. A, B eta C argazkietan.
- B. A, C eta D argazkietan.
- C. B, E eta F argazkietan.
- D. D, E eta F argazkietan.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2: Herritartasuna.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7: Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Egoera errealak (argazkietan irudikatuta) analizatzen ditu eta identifikatzen du haurren eskubideak zein kasutan ez diren betetzen.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C. B, E eta F argazkietan.

3. Pentsa ezazu zu zeu nola bizi zaren. Ados zaude hurrengo esaldiekin? (Erantzun **BAI** ala **EZ**).



	BAI	EZ
a. Eskolara joateko eskubidea daukat, behintzat derrigorrezko hezkuntza bukatu arte.		
b. Eskolara nik nahi dudan orduan joateko eskubidea daukat.		
c. Klasean nire iritzia adierazteko eskubidea daukat.		
d. Semaforoa gorri dagoenean, kalea zeharkatzeko eskubidea daukat.		
e. Besteak iraintzeko eskubidea daukat.		
f. Gaixotzen naizenean mediku batek zaintzeko eskubidea daukat.		
g. Gurasoek nik eskatzen didan guztia niri erosteko eskubidea daukat.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2: Herritartasuna.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Egoera hurbilak analizatzean, zeintzuk diren eskubideak eta zeintzuk ez bereizten du.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	BAI	EZ
a. Eskolara joateko eskubidea daukat, behintzat derrigorrezko hezkuntza bukatu arte.	X	
b. Eskolara nik nahi dudan orduan joateko eskubidea daukat.		X
c. Klasean nire iritzia adierazteko eskubidea daukat.	X	
d. Semaforoa gorri dagoenean, kalea zeharkatzeko eskubidea daukat.		X
e. Besteak iraintzeko eskubidea daukat.		X
f. Gaixotzen naizenean mediku batek zaintzeko eskubidea daukat.	X	
g. Gurasoek nik eskatzen didan guztia niri erosteko eskubidea daukat.		X

4. Hurrengo taulan, ezkerreko zutabean, munduan gertatzen ari denari buruzko zenbait baieztapen dituzu. Eskuinaldeko zutabeetan haurren 4 eskubideak daude. **X** batez adierazi esaldi bakoitzean zein eskubide **EZ den errespetatzen**.




MUNDUKO GERTAERAK	ESKUBIDEAK			
	1 Jatekoa eta medikua izatea	2 Eskolara joatea	3 Iritzia adieraztea	4 Tratu txarrak ez jasotzea
a. Urtero 9 milioi haur baino gehiago hiltzen dira, medikurik ez dutelako.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
b. 93 milioi haurrek ezin dute eskolara joan.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
c. 126 milioi haur lan egitera behartuta daude.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
d. Haur gehienek pentsatzen dutenari ez zaio kasurik egiten.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2: Herritartasuna.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Oinarrizko eskubideak errespetatzen ez diren egoerak identifikatzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

MUNDUKO EGOERAK	ZUZENBIDEAK			
	1 Jatekoa eta medikua izatea	2 Eskolara joatea	3 Iritzia adieraztea	4 Tratu txarrak ez jasotzea
a. Urtero 9 milioi haur baino gehiago hiltzen dira, medikurik ez dutelako.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
b. 93 milioi haurrek ezin dute eskolara joan.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
c. 126 milioi haur lan egitera behartuta daude.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
d. Haur gehienek pentsatzen dutenari ez zaio kasurik egiten.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

5. Erakunde batzuek lan egiten dute haurren eskubideen alde. Erakunde horiek batzuetan dirua eskatu egiten dute.



Zertarako erabiliko da, zure ustez, jendeak ematen duen dirua? Zeure iritzia adierazi **BAI** ala **EZ** markatuz.



	BAI	EZ
a. Herrialde pobreetako haurrentzako botikak eta txertoak erosteko.		
b. Herrialde aberatsetara janaria bidaltzeko.		
c. Herrialde txiroetako eskoletara eskola-materiala (aulkiak, mahaiak, liburuak...) bidaltzeko.		
d. Ura garbitzeko pilulak erosteko; horrela, ura edan ezin den herrialdeetan ura edan ahal izango dute.		
e. Herrialde pobreetarako telebistak eta bideo-jokoak erosteko.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2: Herritartasuna.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.
- **ITEMAREN HELBURUA:** UNICEFF moduko erakundeek herri pobreetako haurrak laguntzeko proiektuak analizatzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	BAI	EZ
a. Herrialde pobreetako haurrentzako botikak eta txertoak erosteko.	X	
b. Herrialde aberatsetara janaria bidaltzeko.		X
c. Herrialde txiroetako eskoletara eskola-materiala (aulkiak, mahaiak, liburuak...) bidaltzeko.	X	
d. Ura garbitzeko pilulak erosteko; horrela, ura edan ezin den herrialdeetan ura edan ahal izango dute.	X	
e. Herrialde pobreetarako telebistak eta bideo-jokoak erosteko.		X
f. Herrialde pobreetako haurrentzako botikak eta txertoak erosteko.	X	
g. Herrialde aberatsetara janaria bidaltzeko.		X

KONTSUMOA

Imajina ezazu Gabonetako jaiak direla eta kalean hurrengo iragarki hau aurkitu duzula:



1. Iragarkia egin dutenek, zer eskatzen digute?

- A. Gure familia maite izatea.
- B. Papa Noelez gogoratzea.
- C. Dirua gastatzea, gure familia maitatzen dugula frogatzeko.
- D. Papa Noeli opari bat erostea.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3: Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Kontsumoarekin erlazionatutako publizitatezko mezuen inguruan gogoeta egiten du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C. Dirua gastatzea, gure familia maitatzen dugula frogatzeko.

2. Zuk zer egingo zenuke iragarki hau ikustean?

- A. Kasua egingo nioke eta gurasoei esango nieke, ni maite banaute, gauza asko erosi behar dizkidatela.
- B. Ez nioke kasurik egingo eta beti bezala nire opariei buruz pentsatuko nuke.
- C. Ez nioke kasurik egingo Papa Noel delako. Olentzero izanez gero, bai.
- D. Kasua egingo nioke eta nire gurasoentzat opari asko erosiko nuke, haiek ni asko maitatzeko.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 1: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 3: Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Publizitateak bere asmoetan eta ekintzetan eragiten duenaren moduak hausnartzen ditu eta, beraz, publizitatearen aurrean jarrera kritikoa adierazten du.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: B. Ez nioke kasurik egingo eta beti bezala nire opariei buruz pentsatuko nuke.



3. Imajina ezazu etxeko erosketak supermerkatuan egiteko agindua eman dizutela. Zer egingo zenuke eta zer ez zenuke egingo? (markatu **BAI** ala **EZ**).

	BAI	EZ
a. Behar diren gauzen zerrenda egingo nuke.		
b. Produktuen prezioak konparatuko nituzke.		
c. Garestiena erosiko nuke, hobe delako.		
d. Tebistan ikusi dudana erosiko nuke, iragartzen ez dutena baino hobe delako.		
e. Niri gustatzen zaidana erosiko nuke.		
f. Eman didaten diruarekin zer eros dezakedan kalkulatu nuke.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Kontsumo arduratsuko jokabideak identifikatzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	BAI	EZ
a. Behar diren gauzen zerrenda egingo nuke.	X	
b. Produktuen prezioak konparatuko nituzke.	X	
c. Garestiena erosiko nuke, hobe delako.		X
d. Tebistan ikusi dudana erosiko nuke, iragartzen ez dutena baino hobe delako.		X
e. Niri gustatzen zaidana erosiko nuke.		X
f. Eman didaten diruarekin zer eros dezakedan kalkulatu nuke.	X	

4. Hurrengo taulan baieztapen batzuk dituzu. Eman zure iritzia eta adierazi zeintzuk iruditzen zaizkizun **EGIA** eta zeintzuk **FALTSUA**.



	EGIA	FALTSUA
a. Pertsona guztiak ondo bizi gara.		
b. Kontsumitzen ditugun produktu batzuk ingurumenerako kaltegarriak diren materialez eginda daude.		
c. Lantegi batzuetan langileak umeak dira.		
d. Gelako lagunen artean zoriontsuenak dira gauza gehien dituztenak.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Kontsumoaren ezaugarri batzuk kontsumo solidarioarekin eta pertsonen ongizatearekin erlazionatzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	EGIA	FALTSUA
a. Pertsona guztiak ondo bizi gara.		X
b. Kontsumitzen ditugun produktu batzuk ingurumenerako kaltegarriak diren materialez eginda daude.	X	
c. Lantegi batzuetan langileak umeak dira.	X	
d. Gelako lagunen artean zoriontsuenak dira gauza gehien dituztenak.		X

Arretaz begiratu hurrengo irudia:

Badakizu zer? Playrako azken jkoa oparitu didate azkenean. Irrikan nengoen.



Nik ez daukat, baina ez zait inporta.

5. Batzuetan, guretzako oso garrantzitsuak diren gauzak ditugu edo nahi ditugu, baina beste pertsona batzuentzat ez dira hain garrantzitsuak. Hurrengo taulako gauzen artean zeintzuk dira, zure ustez, bizitzeko beharrezkoak? (markatu **BAI** ala **EZ**).



Beharrezkoak dira bizitzeko?	BAI	EZ
a. Janaria.		
b. Joko gehien duen telefono mugikorra.		
c. Arropak.		
d. Bideo-kontsolarako azken jkoa.		
e. Gozokiak edo txutxeak.		
f. Markako zapatilak.		
g. Lagunak edukitzea.		
h. Etxean bi telebista edukitzea.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Kontsumoko egoerak aztertzen ditu, oinarrizko beharrak asetzearekin lotuz.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

Beharrezkoak dira bizitzeko?	BAI	EZ
a. Janaria.	X	
b. Joko gehien duen telefono mugikorra.		X
c. Arropak.	X	
d. Bideo-kontsolarako azken jokia.		X
e. Gozokiak edo txutxeak.		X
f. Markako zapatilak.		X
g. Lagunak edukitzea.	X	
h. Etxean bi telebista edukitzea.		X

6. Imaginatu amarekin kirol-zapatilak erosi dituzula. Jantzi dituzunean zola desitsatsi egin da eta ezin dituzu erabili. Zure ama dendara joan da, baina ez diote pare berri bat eman nahi, ezta dirua itzuli ere. Zure ustez, nora joango da ama kexatzera?

- A. Eskolara, zuzendariari laguntza eskatzeko.
- B. Kontsumitzaileen defentsarako bulegora, erreklamazioa aurkezteko.
- C. Udaltzaingora, salaketa jartzeko.
- D. Telebistara, pertsona guztiek jakiteko.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 1: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 2: Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Kontsumitzaile dituen eskubideak antzematen ditu eta erabiltzeko bideak identifikatzen ditu.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: B. Kontsumitzaileen defentsarako bulegora, erreklamazioa aurkezteko.



7. Jantzten duzun arropak momentu batean ez dizu balio, txiki geratu zaizulako. Zer egin beharko zenuke arropa horrekin eta zer ez zenuke egingo. Markatu **BAI** ala **EZ**.

	BAI	EZ
a. Bota egingo nuke edozein lekutan.		
b. Bota baino lehen, interesatuta egon daitekeen norbaiti eskainiko nioke.		
c. Arropak botatzeko edukiontzirik ba ote dagoen galdetuko nuke.		
d. Elkarte batera eramango nuke, arropa behar duen jendearen artean banatzeko.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Berrerabilpena eta birziklapena laguntzen dituzten kontsumo arduratsurako jokabideak bereizten ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

Beharrezkoak dira bizitzeko?	BAI	EZ
a. Bota egingo nuke edozein lekutan.		X
b. Bota baino lehen, interesatuta egon daitekeen norbaiti eskainiko nioke.	X	
c. Arropak botatzeko edukiontzirik ba ote dagoen galdetuko nuke.	X	
d. Elkarte batera eramango nuke, arropa behar duen jendearen artean banatzeko.	X	

MUGIKORRAK HAURRENTZAT

1. testua

Telefono mugikorren erabiltzaileak munduan 2.000 milioi baino gehiago izan ziren 2005. urtean. 2010. urtearen inguruan 3.000 milioi izango dira telefono mugikorra eguneroko bizitzan erabiltzen duten pertsonak.

Telefono mugikorren hazkundera, batez ere, herrialde ez hain garatuetan gertatzen ari da, adibidez Txinan, Indian, Ekialdeko Europan, Latinoamerikan eta Afrikan.

Gure herrialdean telefono mugikorren enpresa handiak (Nokia, Samsung, Motorola...) bezero berriak lortzen ahalegintzen ari dira: 12 urtetik beherako haurrak eta 70 urtetik gorako helduak, hain zuzen ere.

Gaur egun telefono mugikorren salmenta eta erabilera 75.000 milioi euro baino apur bat gehiago sortzen ari dira urtero. Eta diru kopuru hau handituz doa. Enpresentzat sekulako negozioa da.



1. Testuak honi buruz hitz egiten digu:

- A. Mugikorren enpresak.
- B. Telefono mugikorren erabiltzaileen kopuruaren hazkundera.
- C. 12 urtetik beherakoei mugikorrak oparitzea.
- D. Biztanleriaren hazkundera Txina, India, Afrika eta antzerako herrialdeetan.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 1: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 4: Informazioa eta komunikazioa.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Testutik informazio esanguratsua hautatzen du, irudiak, iragarkiak, etab. aztertu ahal izateko.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: B. Telefono mugikorren erabiltzaileen kopuruaren hazkundera.

2. Hurrengo esaldiek oinarrizko behar bat (bizitzeko behar dugun zerbait) adierazten dute ala ez?



	Oinarrizko beharra da	Ez da oinarrizko beharra
a. 2010. urterako Afrikako telefono mugikorren kopurua handitu behar da.		
b. Telefono mugikorrak dohainik banatuko dira 70 urtetik gorakoen artean, ez aspertzeko.		
c. Afrikan txertoak dohainik banatuko dira malariari (oso hedatuta dagoen gaixotasun hilgarriari) aurre egiteko.		
d. Euskadiko haur guztiek medikua eta dentista dituzte.		
e. Enpresak telefono mugikorren bezero berriak lortzen saiatuko dira 6-12 urte bitarteko haurren artean.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Zenbait oinarrizko beharrak identifikatzen ditu eta ez direnetaik bereizten ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	Oinarrizko beharra da	Ez da oinarrizko beharra
a. 2010. urterako Afrikako telefono mugikorren kopurua handitu behar da.		X
b. Telefono mugikorrak dohainik banatuko dira 70 urtetik gorakoen artean, ez aspertzeko.		X
c. Afrikan txertoak dohainik banatuko dira malariari (oso hedatuta dagoen gaixotasun hilgarriari) aurre egiteko.	X	
d. Euskadiko haur guztiek medikua eta dentista dituzte.	X	
e. Enpresak telefono mugikorren bezero berriak lortzen saiatuko dira 6-12 urte bitarteko haurren artean.		X

3. Zergatik telefono mugikorren enpresek lortu nahi dituzte bezero berriak?.

- A. Pertsona guztiei elkarrekin komunikatuta egoten lagundu nahi dietelako.
- B. Herrialde ez hain garatuei lagundu nahi dietelako.
- C. Adineko pertsoneri elkarrekin komunikatzen lagundu nahi dietelako.
- D. Beren negozio handia handitu nahi dutelako.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 1: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 3: Informazioa eta komunikazioa.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Enpresen xede nagusia etekinak gehitzea dela antzematen du.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: D. Beren negozio handia handitu nahi dutelako.

2. testua

Duela egun batzuk *El Periódico Aragonés* izeneko egunkariak aditzera eman zuen *Imaginarium* enpresak 6 urtetik gorako haurrentzako telefono mugikorrak merkaturatu zituela. Modeloa *MO1* deitzen da eta abendutik aurrera dendetan salgai egongo da 59 eurotan. “*Ekipo hauek zazpi tekla bakarrik dituzte eta beren propagandan esaten da –sortzaileen esanetan– beren helburua haurrak komunikazio-sistema horren erabilera egokian heztea dela*”.

Idea ez da berria, bi teklako *Firefly* (aitaxori deitzekoa edo amatxori deitzekoa) eta *Easy 5* baitaude dagoeneko. Guztiek daukate diseinu sinplea eta hurrei zuzenduta daude. Enpresa handiek merkatu hori handitu nahi dute.

Baina erne, erakunde ezberdinen ikerlanen arabera, telefono mugikorrak haurren osasunerako kaltegarriak izan daitezkeelako. Gainera, adin horretan ez dira beharrezkoak, haurrak pertsona heldu batekin egoten baitira beti.



4. Imajina ezazu 6 urteko anaia daukazula. Izeba batek aholkua eskatzen dizu anaiari urtebetetzean telefono mugikor bat oparitu nahi diolako. Zein aholku emango zenioke izebari?

- A. Telefono mugikor hori oso sinplea da, baina anaiak ez du behar eta berarentzako arriskutsua izan daiteke.
- B. Tresna horiek erabiltzen oso errazak dira. Nahi baduzu, eros iezaiozu.
- C. Telefono mugikorra oso beharrezkoa izan daiteke edonorentzat; gainera, asko gustatuko zaio.
- D. Enpresa batek 6 urteko haurrentzako telefono mugikorrek merkaturatu baditu, haurrentzako ona delako izango da. Eros iezaiozu.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 2: Herritartasuna.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 7: Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Abantailak eta desabantailak baloratzen ditu kontsumoari buruzko erabakia hartzen duenean.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: A. Telefono mugikor hori oso sinplea da, baina anaiak ez du behar eta berarentzako arriskutsua izan daiteke.

5. Berri bat irakurtzen dugunean oso garrantzitsua da informazioa (gertaera erreal) eta iritzi pertsonalak bereizten jakitea.

Jarraian, 2. testutik hartutako esaldi batzuk dituzu. Horietako hiru informazioak dira eta beste bat iritzia da. Zein da iritzia?

- A. Mugikorren merkatuan hiru aparailu daude hurrei zuzenduak: Mo1, Firefly eta Easy5.
- B. Erakunde ezberdinen ikerlan askoren arabera, telefono mugikorrak kaltegarriak izan daitezke haurren osasunerako.
- C. Imaginarium enpresak MO1 modelo merkataturatu du 59 eurotan eta abenduan salgai egongo da dendetan.
- D. MO1 aparailuak 7 tekla ditu, propagandaren informazioaren arabera, haurrak telefono mugikorraren erabileran hezteko.



ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 4: Informazioa eta komunikazioa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Publizitate-testuetan informazioa eta iritzia bereizten ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. MO1 aparailuak 7 tekla ditu, propagandaren informazioaren arabera, haurrak telefono mugikorraren erabileran hezteko.